
LADAKH

TIBET TXIKIA

*"Inoiz mendien ahotsa entzun
duenak, ezingo du inoiz ahantzi"*

Tibetar esaera

Ladakh ezagutzera gerturatzten diren bidaiarien zentzumenek errealitate desberdin bat dastatzeko beta paregabea izaten dute. Kontrastez betetako paisaiak, non kolore askotariko lur idorrek, ibai emaritsuek eta mendi elurtuek modu harmoniatsuan puzzle perfektua osatzen duten. Jendeak, otoitzak, lanak eta isiltasunak atmosfera berezi eta erakargarria osatzen duten lurralde hauetan, egunerokotasuna antzinako bizimoduarekin korapilatzen da. Bere orografiaren handitasunean, mendien magal eta muinoetan eskegita dauden monasterioetako otoitzen doinu eta intsen-tsuaren usaina hedatzen dira noranahi. Espiritualtasunak blaitzen dituen lur hauetan, tearen usaina darien herrixkak ilargi itxurako paisaietan nonahi barreiatu ikus daitezke, zerutik lurretik baino gertuago. Ladakh jendea abegikorra eta apala da, bere usadio zaharrak bizirik gordetzen ahalegintzen diren tibetar jatorrizko jendea. Edozein eszena beste garai batekoa dela ematen du, iraganean ainguraturik geratu dela dirudi.



LEH HIRIBURUA

Himachal Pradesh eskualdeko azken herriak igaro eta udan India inbaditzen duten monzoietatik ihesi, munduko errepide eta igarobide garaienetarantz jo dugu. Ladakheko lurretan murgildu aurretik, bost mila metro gaindi duten munduko mendate garaienetako batzuk igaro behar izan ditugu: *Lachulung-La* eta *Tangla-La*, azken hau igarotzeko moduko munduko bigarren mendaterik garaiena omen.

Negu luze eta gordina igarotzean, errepideak estaltzen dituzten elurra eta izotza urtu egiten dira, eta horrela, ekainetik urria bitartean, *Ladakhek* munduari atek irekitzen dizkio. Geologikoki munduko goi-lautadarik handi eta altuena kontsideratzen den Tibetekoan kokatuta egoteaz gain, bere ohitura, kultura eta erlijioan tibetar izaera duen herrialde batekin egin dugu topo. Hortik dator *kio Tibet Txikia* bezala ere ezaguna izatea.

Egun osoan errepide garai, hautsi eta neketsuetan ibili ondoren, *Indo* ibaiaren ertzean



Monje budistak

Lamayuruko monasterioa eta mendiak

TESTU ETA ARGAZKIAK



Mikel Arrizabalaga
(Donostia-Eibar, 1957)

Egunkaria, Berria eta Gara egunkarietan, Pyrenaica, Euskal Herria eta Nora aldizkarietan eta Euskadi Irratian mendiarekin zerikusia duten makina bat artikulu eta kolaborazio egin ditu. Euskal Herriko mendietan ez ezik, Pirinioak, Alpeak, Atlas eta Himalaiako mendietan ibilia da.

kokaturik dagoen *Ladakheko* hiriburua den *Lehra* heldu gara. Hiru mila eta bostehun metroan dagoen hiri txiki eta xarmagarri horrek berehala sortzen du bisitarien ikusmina. Bidaiaeren nekeak astindu, eta bere kale estuetan murgildu gara norabide jakinik gabe. *Stok Kangri* mendi ezagunak erakarri du gure atentzioa lehen begiradan, baina berehala kaleko bizimodura itzuli gara.

Old Marketeko kaleetan murgiltzean, labirinto batean ibiltzea bezalakoa da

Leh, erlijio, jende eta ezustekoen nahaspila da: *ladakhak*, tibetar erbesterratuak, musulmanak, indiarak, monjeak, nekazariak... eta gu bezalako turistak. Zenbait txokotan

oraindik *Erdi Aroaren* usaina dario hiriarri, baina "modernitatearen" lehen zantzuak bereganatzen hasita dago azken urte hauetan, eta horren lekuko dira nonahi ikusi ditugun opari-denda, jatetxe eta ostatuak. Oraingo elkarrekin bizitzen ikasi dute, oreka egokian, baina noiz arte? Etorrizunak ez al du iraganaren irentsiko?

Main Bazaar kale nagusian sartu eta berehala ohartu gara aurrez esandakoaz. Oinezkoen kale berri honetan indiarren komertzioek betetzen dituzte bi aldeak, eta hauen aurrean, berriz, espaloian eserita, nekazari emakumeek beren baratzeak emandako fruitu eta barazkirik onenak dituzte salgai. Lehenak turismoari begira diruz patrikak betetzeko; bigarrenak, aldiz, rupia gutxiren trukez eguneroko bizitzari aurre egiteko. Nekazari bati bertako albertxiko





Jama Masjid meskitaren gainetik, Lehko jauregia, monasterioa eta gaztelua

gozoak erosi eta hiriko alde zaharra ezagutzera jo dugu. *Old Market*eko kaleetan murgiltzean, labirinto batean ibiltzea bezalakoa da, okinak, jostunak, harakinak, bizarginak, bitxigileak eta abar gremioetan antolatuta. Hemen ezagutu dugu *Lehko* ohiko bizimodua, bertako biztanleek egunero erakusten dutena. Kale nagusitik gertu, baina biak ala biak oso errealitate desberdinak.

Baina bada hiri honetan beste errealitate gordina bat, Txinak beren lurraldeak inbaditu eta errepresio gordina ezarrita Tibetetik ihesi lur hauetan aterpea aurkitu duten erbesteratu eta errepresaliatu tibetarren errealitatea, hain zuzen ere. *Tibetan refugees market* izena duten merkatu edo saltoki desberdinetan biltzen dira beren herrialdetik urrun bizi diren tibetarrek, eta guretzat ezin leku egokiagorik haiek saltzen dituzten produktuak erosi eta ahal dugun neurrian laguntzeko. Tibetar jendea apala eta atsegina da oso eta zinez eskertzen dute, ez bakarrik zerbait erostea, baizik eta tibeterraz hitzen bat edo besterik ez bada, konplizitatezko irribarre bat eskaintzea.

Ilunabarrean, eguzkiaren azken izpiek Indo ibaiaren inguruko lurak kolore berezиеz tindatu eta janzen ditu

Lehko kale bizitza ezagutu eta gero, bertako eraikin garrantzitsuenak ezagutu nahi izan ditugu. *Jo Khanh* tenplu budista bisitatu eta kale estuen artean, *Jama Masjid* meskita altxatzen den lekura joan gara, baina ezin izan dugu barruan sartu, otoitz ordua da eta. Segidan, *Lehko* jauregi aldera zuzentzen diren eskaileretan gora erraz heldu gara bertara. Diotenez, Tibeteko hiriburua den *Lashako Potala* jauregiaren miniatura bat da, nahiz eta gauza bera esaten duten *Thiksey* monasterioagatik. Xenda estu batek muinoaren goiko aldean altxatzen diren *Tsemo Gompa* edo Monasterio Gorria eta Gazteluaren ondora eraman gaitu. Talaia ezin hobea, *Lehko* harana ez ezik, *Stok* mendilerroaren ikuspegiak gozatzeko. Iluna-

barrean, eguzkiaren azken izpiek *Indo* ibaiaren inguruko lurak kolore berezиеz tindatu eta janzen dituenen, beherako bidea hartu dugu Budaren mendiek bata bestearen atzean gainjarriz silueta paregabea osatzen duten bitartean. *Tashi delek*.

BUDAREN MENDIAK

Lurralde osoan zehar barreiatuak dauden monasterioetan, monjeen otoitzek hausten duten isiltasunarekin bat egin eta iragaitza den denboran bidaiatzera gonbidatzen gaituzte. Bide batez, meditaziorako liburuez, ikono budistez, intsentsuz eta sandaloaren usainez gozatu ahal da, eguzkiaren izpiek leiho biluziak zeharkatu eta zoko guztiak argitzen dituzten bitartean. Paisaia menditsu hauetan barneratzean, barne-biltze eta meditaziorako dauden espazio anitz hauekin topo egitean eta yak-aren gantzaz elikatutako argiek argizatutako gelak zeharkatzean, isiltasunaren presentzia erabatekoa da eta hau, soilik otoitz monotonoen eta musika tresnen soinu hau-



Sakti monasterioa

LADAKH JENDEA

Ladakh, Indiako Kaxmirreko goi-lautadarik garaiena da. Hiru mila metro gaindiko altueran kokatzen da eta bertan, Himalaia eta Karakorumeko mendikateekin batera, Indo ibaiaren goi-harara hedatzen da. Historikoki, Indo haranaren ingurune jendetsuena izan da eta, Zanskarreko lurrak, Nubra haranak, Aksai Chineko basamortu-lurrak eta Suruko harana barne hartzen ditu. India eta Pakistango zatiketa izan aurretik, Baltistan Ladakheko barrutia zen eta orduan, Skardu hiriburua zen neguan eta Leh udan. Ladakh altuera handian dagoen basamortu hotz bat da, Himalaiako mendikateak montzoien sarrera eragotzen du eta euria urria da.

Mendeetan zehar, autokontsumorako ekonomia garatu izan du eta horretarako, garagar, arto, gari eta astailarra landatzearekin batera, jak, dzo, behi, ardi eta ahuntzen ganaduak zaindu izan ditu. Hiru eta lau mila metro arteko altueran kokatuta dagoenez, laborantza garaia hil gutxi batzuetan bakarrik gara daiteke. Abere gutxi eta ura eskas izanik, ladakh jendeak eskala txikiko laborantza garatu du betidanik, beti ere bere ingurune-baldintzetara egokituz. Iraganean, bere kokapen estrategikoagatik Ladakhek garrantzi handia izan zuen, zenbait bide komertzialen bidegurutze estrategikoa izan zen. 60ko hamarkadan Txinako agintariek Tibet eta Asia Erdiko mugak itxi zituztenez, nazioarteko merkataritza asko gutxitu zen.

Ladakh jende gehiena Himalaia mendikatearen hegoaldean jaio arren, tibetar sentitzen da. Geologikoki munduko goi-lautadarik handi eta altuena kontsideratzen den Tibetekoan kokatuta egoteaz gain, bere ohitura, kultura eta erlijioan tibetar izaera duen herrialdea da. Hortik dator kio Tibet Txikia bezala ere ezaguna izatea. Menditzarren beste aldean bizi diren tibetar anai-arreben kredo, kultura eta gastronomia bera dute.

Filosofia budista-tibetarra (lamaismoa) nagusia izan arren, Ladakhen elkarrekin bizi dira budistak, hinduistak, musulmanak, kristauak eta bestelako erlijioetako kideak. Beren tradizio eta kulturaren oso sustraiturik bizi den herria izanda ere, orografia zailak isolatu eta mugatzen duen herrialde honek, bere azpiegiturak modernizatzeko ahalegin itzela egiten du urtero. Ladakhen bizitzia ez da samurra, negua presente dagoen zortzi hilabete zehar, Himalaiako mendien magalean kokatuta dagoen ingurune leku babesgabea baita.



Monasterioek protagonismo berezia dute Ladakheko bizitza sozial eta erlijiosoan. Familiek ohikoa dute beren seme-alabetako bat budista apaizgora bidaltzea. Harrotasunaz gain, haren hezkuntza eta mantenua bermatzen dute, kasu askotan oso eskasa den familia-ekonomia batentzako. Tibeteraren euskalkia kontsideratzen den ladakha da bertako hizkuntza. Eskualdean gehien hitz egiten den hizkuntzarekin batera, populazioaren gehiengoak hindi eta urdua hizkuntzak ere ezagutzen ditu.

tisien oihartzunak protagonismoa bereganatzen duenean hausten da. *Ladakh* budismo tibetarra bere esentzia osoan bizi den leku bakarrenetakoa da gaur egun. Bizimodu zaila izan arren, fedearen presentzia betierekoa eta ezabaezina dela ematen du.

Esperientzia hauek guztiak ezagutu eta bizitzeko, hurrengo hiru egunetan hiriburua utzi, haranetan murgildu, eta mendien muino eta magaletan eskegita dauden monasterio tibetar zenbait ezagutu nahi ditugu. Hiriburutik bertatik abiatu eta *Indo* ibaiak marrazten duen lerroaren bi aldeetan altxatzen diren monasterioak bilatu ditugu lehenik, gerora *Lamayuruko* haraneko ilargi itxurako paisaietan txertaturik daudenak, eta azkenik, *Nubra*ko haran hunkigarrian bameratu gara.

Mailakatuta dauden lur-sailetan garagarra eta gariarekin batera, autokontsumorako barazkiak landatzen dira



Diskiteko monasterioaren Budaren irudi erraldoia

Indo ibai emaritsuaren ertzean altxatzen diren *Shey* eta *Thiksey* monasterioak bisitatu ditugu lehenik. Monasterio gehienak mendi muino idorretan altxatzen dira, eta

modu mailakatuan kokatuta daude. *Thiksey*koak piztu du gure arreta, *Maitreyaren* (etorkizuneko Buda) tenplua bereziki, bere 15 metroko altuerarekin *Ladakhen* dagoen



Matho monasterioa

Budaren irudirik handiena baita. Gure ibilbi-dearekin jarraituz, *Sakti* haranaren hasieran dagoen *Chemrey* monasteriorantz jo dugu, baina aurrez bertako jendearen bizimoduaz interesatu gara. Ladakhiar emakume alar-gun batek gidari lana egiteko bere burua eskaini digu. Mailakatuta dauden lur-sailetan garagarra eta gariarekin batera, autokontsumorako barazkiak landatzen dira.

Nekazari neska gazte batek ilarrak gordinik jatera gonbidatu gaitu umeen algaren artean. Bidezidorren artean etxaldera iritsi eta bere etxe xumea erakutsi digu, ukuilua eta sukaldea. Apenas bizitzeko duen emakumeak irribarre zabal batekin agur esan eta bere etxeko egur zaharreko atearen ondoan geratu da kale artean desagertu garen arte. Monasteriora igo eta bertatik haran berdeak eskaintzen duen ikuspegiaz gozatu dugu. Lana eta otoitza dira jende honentzat bizitzeko dituzten bi euskarriak, biak lotu eta egunero intentsitate handiz bizi dituztenak. Egunari amaiera emateko, Indo ibaia zeharkatu eta *Stok* mendilerroaren magaletan dauden beste monasterioak bisitatu ditugu: *Ladakheko* monasteriorik handiena eta aberatsena den *Hemiseko*arekin batera, *Stakna* eta *Mathokoak*.

Herrixka hauetako biztanleek bizitzari errespetuz eta modu xumean egiten diote aurre

Hurrengo egunean, *Lamayuruko* harana ezagutzera jo dugu, bertan kokatzen baita *Ladakheko* monasteriorik zaharrena. Leku bakarti batean kokaturik eta mendiez erabat inguraturik dagoenez, egunerokotasunetik ihes egin nahi duenarentzat toki ezin aproposagoa. Ilunabarrean eguzkiaren izpiek jaulkitzen duten argitasuna izkutatzek sortzen duen espektakuluaz gozatzeko toki paregabea. Ezti koloreko mendiak itzaliz doazenean eta gauaren beltzak harana inbaditzen duenean, soilik mendien siluetak sortzen duen marrazkia geratzen da gure begien ninien gozamenerako. *Lehra* itzultzean, *Rizong*, *Alchi* eta *Likireko* monasterioak ezagutu ditugu.

*Nubra*ko harana dugu azken jomuga, baina haraino ailegatzeko igarotzeko moduko munduko mendaterik altuena omen den *Khardung-La* (5.602 m) pasa behar

izan dugu. Amildegi zorabiagarriei erantsita dagoen errepide honetatik *Nubra*ko haran aldera jaitsi gara. *Shyok* ibaiaren ur arreak indarrez jaisten dira *Hunder* aldera, baina aurrez, *Nubra* ibaiaren ertzean dagoen *Sumur* monasterioa bisitatzera joan gara, eta bertatik, primeran ikusi ahal izan dugu bi ibaien artean hedatzen den haran paregabea. Segidan errepidera itzuli eta *Diskiteko* monastegira joan gara; kanpoan Buda erraldoi batek haranaren zaindari gisa agertzen da. Toki garaienera igo eta *Nubra*ko harana bere osotasunean ireki dizkigu besoak postalik ederrena erakutsiz.

Karakorumak harresitzen duen basamortu itxurako espazio honetan, dunak eta bazkalekuak elkarren ondoan bizi dira, bakoitzak bere espazio okupatuz. Une oro haranak erakusten duen handitasun natural honen aurrean, herrixka hauetako biztanleek beraiek landatzen dituzten produktuetatik bizi dira, eta bizitza horri errespetuz eta modu xumean egiten diote aurre, beren egunerokoan budismo tibetarra inspirazio iturri izanik. Deskribatzeko orduan hitzak labur geratzen zaizkigu, ez du inor epel uzten.

Ladakhen denborak ez du noiz. *Thuk Je Che*.